



TRIKU TRAIL MENDI LASTERKETAKO ARAUTEGIA | 2024

SARRERA:

TRIKU TRAIL mendi lasterketa, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko kide den, CIF zenbakia G-71316681 duenak eta egoitza Etxarri Aranazko Ikastola kaleko 1 zenbakian duen TRIKU TRAIL KIROL ELKARTEAK antolatzen du.

1. LEKUA, DATA ETA ORDUA:

TRIKU TRAIL mendi lasterketa **2024ko EKAINAREN 30ean** goizeko 9:30etan ospatuko da. Irteera eta helmuga Etxarri Aranazko kanpineko instalakuntzetan kokatuak izango dira. Aurtengo edizioak bi distantzia izango ditu:

- **TRIKU TRAIL 21 KM [TT21KM]** goizeko 9:30ak aitzin.
- **TRIKU TRAIL 10 KM [TT10KM]** goizeko 9:45 aitzin.

2. TRIKU TRAIL 21 KM [TT21KM]:

Lasterketak 21 kilometroko ibilbidea izango du eta 1.300 metroko desnibel positiboa. X. edizioa **EUSKAL HERRIKO MENDI LASTERKETEN KOPAR**ako puntuagarria izango da.

3. TRIKU TRAIL 10 KM [TT10KM]:

Lasterketa hau adin guztiei bideratua dago.

Lasterketak 10 kilometroko ibilbidea izango du eta 565 metroko desnibel positiboa. **TT10KM**, **EUSKAL HERRIKO MENDI LASTERKETEN KOPAR**ako puntuagarria izango da, kadete, gazte eta junior kategoriatan [2009. urterarte jaioak].



4. PARTE-HARTZEA [TT21KM]:

18 urte baino gehiagoko kirolari, korrikalari edo mendizaleak [federatua zein federatu gabeak] parte hartu ahalko dute. Denboraldi osorako kontuan hartu beharreko adina parte-hartzaileak lehiaketaren urteko abenduaren 31n duena izango da eta arautegi honetan jartzen duena onartzen badu. Antolakuntzak, parte-hartzaile guztiei, mediku errekonozimendu bat eta esfortzu proba bat egitea aholkatzen die, parte-hartzaile guztiek kirol jardueratik eratorritako arrisku guztiak onartuz.

5. KATEGORIAK [Probaren urtean betetako urteak]:

EMAKUMEZKOAK eta GIZONEZKOAK:

- **TT21KM:** Absolutua: 18 urtetik gorakoak.
- **TT21KM:** Beteranoak: 45 urtetik gorakoak.
- **TT10KM:** Kadete, gazte eta juniorrak.

6. IZEN-EMATEAK:

Izen-emateak www.kronoak.com webguneen bitartez gauzatuko dira.

Korrikalari kopuruak hauek dira, **TT21KM**rako 350 eta **TT10KM**rako 150. Guztiak izena emandako hurrenkeran.

Izen-emateak Martxoaren 8an zabalduko dira [12:00tan] eta Ekainaren 21ean itxi edo dortsak kopurua agortutako momentuan.

TT21KM: 25 €

TT10KM: 12 €

Izen-emateak, lasterketan parte hartzeko eskubidea, ardua zibileko eta istripuetarako aseguratuko eskubidea ematen die korrikalariei.

Izen-emateak, ardua zibileko zein istripuetarako erantsia duen aseguruua, dortsalaren jabea babesteko da.

Antolakuntzak, bere konpromezuetarako dortsalak gordeko ditu.



7. DORTSAL BANAKETA:

Dortsalak hartzeko gunea Etxarri Aranazko kanpinean egongo da.

Ekainak 29 larunbata: 19:00etatik 21:00etara.

Ekainak 30 igandea[lasterketa egunean]: 8:00etatik 9:15etara

DERRIGORREZKOA izango da NANA aurkeztea dortsala jasotzeko.

8. SEINALIZAZIOA:

Ibilbidea behar bezala seinalizatua egongo da. Baliza berrerabilgarritz, egurrezko seinalaz edo/eta boluntarioen bidez.

9. ANOA-PUNTUAK:

TT21km: 6 anoa-postu ornituko dira.

1. Auntzetxe	5 km	likido + solido
2. Lizarrusti	10 km	likido + solido
3. Txaradigorri	12 km	likido
4. Iraigorri	16 km	likido + solido
5. Fagamendi	17 km	likido
6. Helmuga	21 km	likido + solido

TT10KM: 3 anoa-postu ornituko dira.

1. Iraigorri	6 km	likido + solido
2. Fagamendi	6,7 km	likido
3. Helmuga	10 km	likido + solido



10. SARIAK TT21KM [Sariak akumulagarriak izango dira]:

1. emakumezko nagusia: 300 €, garaikurra eta txapela.
2. emakumezkoa nagusia: 200 € eta garaikurra.
3. emakumezkoa nagusia: 100 € eta garaikurra.

1. gizezkoa nagusia: 300 €, garaikurra eta txapela.
2. gizezkoa nagusia: 200 € eta garaikurra.
3. gizezkoa nagusia: 100 € eta garaikurra.

1. emakumezko beteranoa: garaikurra.
1. gizezko beteranoa: garaikurra.

1. emakumezko sakandarra: garaikurra.
1. gizezko sakandarra: garaikurra.

1. emakumezkoa herritar: garaikurra.
1. gizezkoa herritar: garaikurra.

11. KONTROLA [TT21KM]:

Lizarrustiko anoa puntuan [10. kilometroan] kontrola egongo da. Korrikalari guztiak derrigorrez pasa beharko dira kontrol-puntu horretatik.



12. DENBORA MUGAK [TT21KM]:

Lasterketa osatzeko denbora muga 4 ordukoa izango da eta horrez gain, ibilbidean zehar denbora mugak markatuko dituzten **BI PUNTU** izango dira:

Lehena **LIZARRUSTIKO** anoa-puntuan [10KM] egongo da. Hortik lasterketa hasi eta **1h eta 45 minuto azpitik pasa beharko da**. Aipatutako denbora horretatik gora pasatzen den korrikalaria, lasterketa utzi beharko du eta korrikan jarraitu ezgero bere ardurapean izango da.

Bigarrena **IRAIGORRIKO** anoa-puntuan izango da [15KM] eta bertatik **3h azpitik pasa beharko da**. Aipatutako denbora horretatik gora pasatzen den korrikalaria, lasterketa utzi beharko du eta korrikan jarraitu ezker bere ardurapean izango da.

Edozein kasutan ere, antolakuntzak eskumen guztiak dauzka denbora mugak betetzen ez dituzten korrikalariak, arautegia betetzen ez dituztenak, markatutako ibilbidea osatzen ez dituztenak, dortsala ikusgai ez dituztenak, antolakuntzaren aholkuak eta aginduak betetzen ez dituztenak edo gainontzeko korrikalarietako errespeturik eza eta kiroltasun eskaxeko jarrera azaltzen dituzten korrikalariak lasterketatik kanpo uztea.

13. DERRIGORREZKO MATERIALA:

Korrikalari guztiek **DERRIGORREZ** eraman beharko dute jarraian zerrendatutako materiala:

- Manta termikoa.
- Xira edo haize babesle kaputxaduna.
- 500 ml-tako edukiontzia, soft flask, botilatxoa, camel back...

Derrigorezko materiala ikuskatuko da irteerako korralitora sarreran eta ibilbidean zehar hautazko kontroletan. **DERRIGORREZKO MATERIAL GUZTIA EZ DARAMAN KORRIKALARIA LASTERKETATIK KANPORATUA IZANGO DA.**



14. KRONOMETRAIA:

Dortsaletan itsatsita egongo diren txip bidez izango da. Parte-hartzaileak, sailkapenak argitaratu eta 30 minutuko epea izango dute antolakuntzari edozein erreklamazio edo/eta zalantza gauzatzeko. Tarte hori pasatuta sailkapenak ofizialak izango dira.

15. INGURUGIROA:

Lasterketa Etxarri Aranazko pagadi eta hariztietatik barna izango da eta erabat debekatua egongo da edozein zabor mota lurrera botatzea, horretarako antolakuntzak zabor bilketa puntuak prestatuak edukiko ditu.

TRIKU TRAIL KIROL ELKARTEAK ingurugiroari kalterik txikiena egiteko apostu garbia egiten du, ahalik eta zabor kantitaterik txikiena sortuz [0 ZABOR].

Korrikalariak nahi izanez gero, bere edalontzia, edukiontzia, soft flask, botilatxoa... anoa-puntuetan likidoa hartzeko erabili ahalko du.

Oinarrizko arautzat dugu hau, beraz, zaborra behar ez den tokira botatzen duen korrikalaria lasterketatik kanporatua izango da.

16. OSASUN ASISTENTZIA:

Antolakuntzak ibilbideko gune estrategikoetan sorospen puntuak ezarriak izango ditu.

17. SEGURTASUNA:

Edozein baldintza ematen dela ere, antolakuntzak eskumen guztia du lasterketa ibilbide alternatibo batetik desbideratzeko, eta beharrezkoak estimatzen dituen aldaketak egiteko ere, hala nola lasterketa bertan behera uzteko ere, eguralditik eratorritako baldintzak behartuta eta/edo nahitaezko beharreatatik. Korrikalariaren ongizatea eta segurtasuna bermatzea izango da edozein erabaki hartzeko irizpide nagusia. Erabakia lasterketako zuzendaritza komitean hartuko da.



18. ISTRIPUETAN LAGUNTZA:

Parte-hartzaileak behartuta daude, istripua izan duen/duten korrikalariak laguntzea. Antolakuntzako boluntarioen puntutan [anoa-puntutan, kontrol gunetan, bide-gurutzetan...] edozein gertakizunen berri ematea behartuta daude parte-hartzaile guztiak.

19. ARDURA:

Antolakuntzak bere gain hartuko ditu ibilbidean gertatutako istripuak. Baina ez du inongo ardurarik izango istripua korrikalariaren arduragabekeriak probokatu ezgero. Parte-hartzaileak bere buruari zein beste edonori eragindako kalteen ardura guztia izango du.

20. PARTE-HARTZE IRUZURGILEA:

Dortsalik gabe edo beste norbaitenarekin, bere nortasuna ordezkatzuz parte-hartzen duen korrikalaria, lasterketatik kanporatua izango da eta hurrengo edizioetan parte-hartzea galaraziz zigortuak izango dira korrikalaria eta dortsalaren titularra.

21. IRUDI ESKUBIDEAK:

Parte-hartzaile guztiak antolakuntza eta bere babesleak baimentzen ditu lasterketaren testuinguruan ateratako irudi zein bideoak denboran mugarik gabe, erabili eta publiko egiteko.

22. ITZULKETAK ETA IZEN-EMATEEN ALDAKETAK:

Dortsalen itzulpenak eta/edo izen-emateen aldaketak lasterketa baino 10 egun lehenagorarte onartuko dira.

23. ARAUTEGIAREN ESKUBIDEAK:

TRIKU TRAIL KIROL ELKARTEAK, IFK duen zenbakia: G-71316681; egoitza: Ikastola kalea 1, Etxarri Aranatz, **ERABATEKO AHALMENA DU** arautegi hau edozein unetan eguneratu, aldatu edo/eta bertan behera uzteko, baldin eta kaltetuei jakinarazten badie.